

GOSEAREN AURKA

LAGUNTZEN

Otsailaren 11'n egin dogu Gosearen aurkako Ekiñaldian, diru-laguntza emoteko egun berezia, baiña edozein egunetan eta urte osoan da sasoi laguntza ori emoteko, orretarako naikoa da Banku batera joan eta Ekiñaldi orretarako dirua eskintzea.

Baiña sarritan kezka au sortzen jaku barruan: Eltzen ete da gero, nire laguntza au eldu bear dauan lekura? Ala bidean urtu ta galdu egiten ete da?

Eta kezka orrek be bere zioa dauka, noizbeinka entzuten dogulako Ameriketako edo Afrikako agintariren batek banatze ori oker egiten dauala.

“ESKU ALKARTUAK” deritxon ekiñaldi onetan badakigu eltzen dana eta zertan erabilten dan be bai, beste urte batzutan lez, aitatu dagiguzan irugaren munduan egiten diran laguntzazko ekiñaldi batzuk.

ASIA'n

Igaz Asia'n 143 eginbide bete dauz “Esku Alkartuak” Gosearen aurkako ekiñaldiak: Bost lurgintzan: 23 osin, 15 sendiretzat lurra erosi, iru landa-etxe egin, 332 abere ta bost traktor erosi.

Iru gizarte laguntzan: 216 etxe egin, Etxegintzarako Alkargoari ordaindu, 12 itxas-ontzi ta sei jeep erosi.

Jakintza arloan beste iru: 24 ikastetxe egin, ikastelaguntzak emon, lau ikastetxetarako lan-gaiak erosi.

Osasungintzan bi: Lau gaiso-etxe, 11 aztertze-etxe eta 3 janaritze-toki egin eta sei gaiso-etxetarako osagille-gaiak erosi.

Emakumeen aurrerapenerako beste bi: Emakumearen aurrerapenerako 10 toki egin eta eungiña erosi, 50 josteko eta idazteko tramankulu erosi.

Eginbide oneik 332.908.831 pezeta bear izan dabez.

AFRIKA'n

83 eginbide bete dira, dirutza 159.525.785 pezetakoa dala.

Lurgintzan: Osiñak, ur-askak, ura eroateak, landa-etxeak, errotaketa kakaueteentzat dollarak, traktorak, lanabesak.

Gizarte-saillean: 22 bizileku, 16 osasun-etxe, bost gizarte-etxe, ola bat, zazpi zubi, bide zabala, andapara bat. Lau jeep, 14 itxas-ontzi, berebil eroale bat eta autobus bat erosi, alkargo bi aurrera atera.

Jakintza-arloan: Zazpi ikastegi eta bost lanbide ikastegi egin, zazpi ikastetxetarako gaiak erosi.

Osasungintzan: Gaiso-etxe bat, sei aztertze-etxe, umegintzarako etxeak, ume-etxeak, janaritze-etxeak. Iru osasun-toki ornidu, bost gaiso-berebil, osagille bateri ordaindu.

Emakumearen laguntzan: Orretarako bost toki egin, 34 idazkin erosi, edo joskiñak, janaritze-ikastaroak.



AMERIKETAN

192 ekiñaldi bete dira, 385.064.173 pezetako dirutzagaz.

Lurgintzan: Lau osin, lau gorakin, ur toki bi, ureztazteak eta urbide barria. Bost treberi ordaindu eta lurgintzako bost ikastaro eratu, iru alkargo eta arrain-toki bat, 20 ektarea lur, 356 abere, kamioi bat zazpi traktor eta lanabesak erosi.

Jakintzan: 14 eskola egin, 12 ikas-sari, 23 irakasle-sari 13 ikastaro. Lau ikastetxetarako gaiak erosi eta bost liburutegi sortu.

Gizarte-lanean: 470 bizileku egin, 15 lanbide-ikastegi 16 ola, zubi ezkegi bi, bidebarria, jantokia, eskatza. Bizilekuak egiteko lau alkargo bideratu eta irrati bat ipiñi, jeep bi, sei itxas-ontzi ta berebil eroale bi erosi. Zortzi ola eta Lanbide-ikastegi bat lanabesez jantzi.

Osasungintzan: 14 aztertze-etxe, ume-etxeak, umegintzarako etxeak, janaritze-etxeak. Bost osagille-etxe osotu, gaiso berebil bat, gaiso-etxe bi eta laborategi bat ornidu.

Emakumeen laguntzan: Emakumeen aurrerapenerako bederatzi etxe eta eungin bat egin. 59 idazkin edo jozkin erosi.

* * *

Ez gaitazan ba nagiak izan munduan dan goseari ta bear dan aurrerapenerari bide egokiak sortzeko laguntza emoteko. Ez dagigun aitzu jakingarri pentsagarri au: Lurraren garririk berakoak dira gosez bizi diranik geienak eta Ego-Amerika alde batera itzi ezker, orreixek dira Barri Ona gitxien artu dabenak be. Mundu aberatsenak kristiñauak dira eta norberekeriak eraginda laguntza larregirik ez dabela emoten esan lei.

OLAZAR'tar MARTIN'ek